

BIRGAITZE INTEGRAL ETA EFIZIENTEKO OBREN PROIEKTUEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA (3. LERROA)

III.A eranskina. Laguntzaren xede den esku-hartze proposamenaren edukia eta egitura.

Proposamenak agindu honen xedea betetzen dela justifikatzeko eta proposatutako jarduketa bakoitzean oinarrituta dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatu ahal izateko beharrezkoa den informazio idatzi eta grafiko guztia jasoko du. Proposamen horrek honako dokumentu hauek izango ditu:

1. Deskribapen- eta justifikazio-memoria.
2. Proposamenaren azterketa ekonomikoa.
3. Planoak.

Dokumentu bakoitza gidoi honen arabera egingo da:

1. DESKRIBAPEN- ETA JUSTIFIKAZIO-MEMORIA.

Zehazki, deskribapen- eta justifikazio-memoriak eskema honi jarraituko dio:

- 1) AGENTEAK.
 - a. Erredakzio-taldea.
 - b. Proiektuaren sustatzaileak: sustatzaile bakoitzaren IFZ adierazi behar da.
- 2) ENKARGUAREN XEDEA.
- 3) AURRETIAZKO INFORMAZIOA.
 - a. Kokalekuaren eta ingurune fisikoaren datuak.
 - b. Abiapuntuaren aurrekariak eta baldintzatzaileak.
 - c. Hirigintza-araudia eta, hala badagokio, beste araudi batzuk (babes-araubidearen mendeko higiezinak, BIAen parte izatea, etab.).
- 4) EGUNGO EGOERAREN DESKRIBAPENA.
 - a. Eraikinaren edo eraikin-multzoaren ortoargazkia edo kokapen-planoa, dauden atari guztiak adierazita eta laguntzak eskatzen dituzten atariak nabarmenduta.
 - b. Eraikinaren edo multzoaren adina. Nolabaiteko garrantzia duten beste birgaitze batzuk egin badira, birgaitze horien data eta xedea.
 - c. Azaleren eta erabileren taulak, solairuka, atari bakoitzerako. Solairu bakoitzeko etxebizitza kopurua adierazi beharko da.
 - d. Etxebizitzen bizigarritasun-baldintzak betetzearen justifikazioa, atari bakoitzerako, 317/2002 Dekretuaren IV. eranskinaren arabera. Justifikazioa etxebizitza bakoitzerako egin beharko da, edo gutxienez etxebizitza mota bakoitzerako, eta berariaz adierazi beharko dira araudia betetzen dela bermatzen duten etxebizitzen baldintza zehatzak.

Etxebizitzetako batek baldintzaren bat betetzen ez badu, berariaz adierazi beharko da nola zuzenduko den hutsune hori, obrak egiteko denbora-

eremuaren barruan.

e. Eraikuntza-ezaugarri orokorrak.

I. Zimenduak eta egiturak.

II. Inguratzailea

III. Etxeko ur beroa eta berokuntza sortzea.

IV. Irisgarritasuna.

V. EITaren emaitza.

Presako obrak badaude, berariaz adierazi beharko da nola konponduko diren hutsune horiek, obrak egiteko epearen barruan.

VI. Argazki-erreportajea.

Gabeziak dituzten eraikinaren elementu guztiak eta/edo jarduketaren xede direnak jaso beharko dira.

5) ESKU HARTZEKO PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA.

a. Jarduketaren laburpena: esku-hartzearen bidez egingo diren jarduketa guztien deskribapen laburra egingo da, diruz lagundu daitezkeenak eta lagundu ezin daitezkeenak.

Egin beharreko esku-hartze mota adierazi behar da (birgaitze integrala, birgaitze partziala, eraberritzea, etab.), EKTan jasotako definizioen arabera, eta berariaz adierazi behar da:

I. Birgaitze integrala den ala ez.

II. Egituran jarduten den, eta baiezkoa bada, egitura finkatzeko jarduketa den ala ez.

III. Esku-hartzearen ondorioz etxebizitza kopurua handitzea aurreikusita dagoen.

b. Energia-efizientzia hobetzeko jarduketak.

I. Atari bakoitzerako egungo egoeraren energia-ziurtagirian eta egungo egoeraren eta proposamenaren energia-kalifikazioari buruzko esku-hartze proposamenean lortutako emaitzen laburpena, hala badagokio, emaitzak jarduketa pasiboekin, proposatutako jarduketa aktiboekin egindako hobekuntzarekin eta proposatutako aireztapen-instalazioekin egindako hobekuntzarekin bereizita, honako hauek adierazita:

- CO2 emisioak, lortutako hobekuntza-ehunekoa eta isuri horiei dagokien kalifikazioa adierazita.
- Energia primario berriztagarriaren kontsumoa, lortutako hobekuntza-ehunekoa eta kontsumo horri dagokion kalifikazioa adierazita.
- Berokuntzaren urteko energia-eskaria, lortutako hobekuntza-

ehunekoa adierazita.

- Produktibitate- eta jarraipen-adierazleak, hasierakoak eta hobekuntzak egin ondoren aurreikusitakoak:

Produktibitatearen eta jarraipenaren adierazleak, hasierakoak eta obrak egin ondoren lortutakoak, energia-efizientzia hobetzen bada.

Hona hemen adierazle horien identifikazioa:

C031 - Energia-kontsumo hobea duten etxeen kopurua (Etxeak)

Jabeen erkidegoak eraikinaren ingurutzalea eraberrituta energia-efizientzia hobetu zaien etxebizitzien kopurua zenbatu da, bulegoak, lokalak eta abar kontuan hartu gabe.

Kontabilizazio hori Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren (EIT) txostenean eskuragarri dagoen informazioaren bidez egiten da.

C034 - Berotegi-efektuko gasen urteko gutxitze zenbatetsia (CO₂ tona baliokide/urte)

Adierazle hau behar bezala kalkulatzeko, informazio hau behar da:

- Eraikinaren aurreko egoeraren kalifikazio energetikoa, CO₂/m² urteko tona baliokideetan, aurreko egoeraren EEZ (energia-efizientiaren ziurtagiria), zenbakizko balioa eta letra.
- Energia-efizientiaren Ziurtagirian (EEZ) agertzen den balioa kg-tan dago; beraz, zati 1.000 egin behar da tonak (Tn) jartzeko.
- Azalera erabilgarri bizigarria (m²) aurretiko egoeran: EEZan sartutako datua (Energia-efizientiaren Ziurtagiria).
- Eraikinaren egoera eraberrituaren kalifikazio energetikoa, CO₂/m²-ko tona baliokideetan, urtean, egoera eraberrituaren EEZ (energia-efizientiaren ziurtagiria), zenbakizko balioa eta letra.

Energia-efizientiaren Ziurtagirian (EEZ) agertzen den balioa kg-tan dago; beraz, zati 1.000 egin behar da tonak (Tn) jartzeko.

Azalera erabilgarri bizigarria (m²) egoera eraberrituan: egoera eraberrituaren EEZan (energia-efizientiaren ziurtagiria) sartutako datua.

CO₃₄ adierazlearen balioa: (A x B) – (C x D)

Etxebizitzien azalera erabilgarria, guztira	CO ₂ isuriak, Egungo egoeran (Kg/m ² urtean)	CO ₂ isuriak, kalifikazioaren mugarako (Kg/m ² urtean)	C	CO ₂ isuriak, Birgaitzearen osteko egoeran (Kg/m ² urtean)
C eta egungo egoera arteko isurketen murriztea, CO ₂ tn/urtean				

Birgaitze osteko eta egungo egoeren arteko isurketen murriztea, CO2 tn/urtean	
Hobekuntzak eragindako etxebizitzaren kopurua	

A taula: hasierako eta aurreikusitako produktibitate- eta jarraipen-adierazleak

II. Jarduketa pasiboen deskribapena.

- Proposatutako irtenbidearen deskribapena, atari bakoitzerako, honako hauek bereizita:
 - Fatxada: berariaz adierazi behar da solairu bakoitzeko forjatuan EI-60 sektorizazio horizontala txertatuko dela, sutarik izanez gero fatxadan zehar hedapen bertikala mugatzeko.
 - Hutsuneak.
 - Hegalak, irtenguneak eta teilatu-hegalak.
 - Zubi termikoak.
 - Estalkia.
 - Zola edo forjatu sanitarioa.
 - Berotu gabeko espazioekin kontaktuan dauden barne-partizioak.

Berariaz adierazi beharko da inguratzailaren zein elementutan ez den jarduten.

- Itxitura mota bakoitzaren ereduazko eraikuntza-sekzioen eskema, elementuak biltzen dituen laburpen-aula batekin batera, erresistentzia termikoak eta lodierak, eta ondoriozko guztizko transmisioa barne. Itxitura bakoitzari dagokionez, egungo egoerari, eraberritutako egoerari eta aztertutako itxituraren gutxi gorabeherako azalerari buruzko informazioa sartu behar da.

Baon taula: baon egungo egoerari buruzko laburpen-aula bat sartu beharko da, in situ bisitetan jasotako datuekin eta egungo egoerari buruzko EEZ egiteko aintzat hartutako datuekin bat. Horietakoren batean esku hartzen denean, arotzerien prestazio berriak adierazi beharko dira, baita esku-hartze horiek egingo diren etxebizitzak ere; etxebizitza horien jabeen oniritzia izan beharko dute.

- Proposatutako jarduketa pasiboen bidez berokuntzaren eskarian lortutako murrizketa. Taula bat sartuko da, honako datu hauekin:
 - Egungo egoeraren berokuntza-eskaria
 - Egoera eraberrituko berokuntza-eskaria, proposatutako jarduketa pasiboekin (aireztapen-instalazioen murrizketa kontuan hartu gabe, esku-hartzearen parte badira)
 - Jarduketa pasiboen bidez berokuntza-eskariaren gainean

lortutako %-aren murrizketa

- Honi buruzko justifikazioa:
 - Kondentsazioak
 - Ingurutzailer termikoaren airearekiko iragazkortasuna
 - Etxebizitzaren barruko airearen kalitate-baldintzak

III. Jarduketa aktiboen deskribapena.

- Proposatutako irtenbidearen deskribapena, honako hauek bereiziz:
 - Efizientzia handiko instalazio kolektiboa: deskribapena.
 - Banakako galdarak instalatzea/ordeztea: atari bakoitzerako adierazi behar da:
 - + Etxebizitza bakoitzean dagoen etxeko ur beroa eta berokuntza sortzeko sistema.
 - + Ordeztu beharreko galdara/instalazio berrien kopurua eta horien potentzia.

Jarduketa horiek zein etxebizitzatan egingo diren adierazi beharko da, eta jabeen berriazko baimena izan beharko dute.

- Eguzki-instalazioak. Atari bakoitzerako honako hauek sartu beharko dira:
 - + Instalazioaren bideragarritasunari buruzko aurreiazko azterlana: estalkian dagoen azalera erabilgarria eta orientazioa, instalazioetarako behar den espazioaren erabilgarritasuna eta proposatutako eroanbideak.
 - + Instalazioaren puntako ekoizpena, onartutako kalkulu-tresnaren bidez kalkulatu
 - + Panelen kopurua eta proposatutako hartze-azalera.
- Geotermia-instalazioak. Atari bakoitzerako honako hauek sartu beharko dira:
 - + Instalazioaren bideragarritasunari buruzko aurreiazko azterlana: urbanizazio pribatuan erabilgarri dagoen azalera, instalazioetarako behar den espazioaren erabilgarritasuna eta proposatutako eroanbideak.
 - + sorgailuaren potentzia termikoa.
- Aireztapen-instalazioa. Atari bakoitzerako honako hauek sartu beharko dira:
 - + Proposatutako aireztapen mekanikoko sistema (hezetasun-detekzioa, CO₂ bidezko presentzia-detekzioa, fluxu bikoitzeko bero-berreskuratzailea), sistemaren dokumentazio ofizialarekin

bat datozen kalkulu-balioak barne (ETD/EED, prestazioen deklarazioak, CE marka, etab.), eta, bero-berreskuratzailearen kasuan, "berreskuratzailearen efizientzia", ekipoaren, kontsumoen eta abarren xehetasunak sartzea ahalbidetzen duen kalkulu-tresnaren bidez lortua.

+ Instalatu beharreko etxebizitzaren kopurua.

Jarduketa horiek zein etxebizitzatan egingo diren adierazi beharko da, eta jabeen berariazko baimena izan beharko dute.

- Jarduketa aktiboen bidez lortutako murrizketa (aireztapena izan ezik)

Aireztapen-instalazioaz bestelako jarduketa aktiboak egiten direnean, taula bat sartuko da honako datu hauekin:

- Egungo egoerako EPNR kontsumoa/egoera eraberritua, proposatutako jarduketa pasiboak soilik kontuan hartuta (aireztapen-instalazioek eragindako murrizketa kontuan hartu gabe, esku-hartzearen parte badira)
 - Egoera eraberrituaren EPNR kontsumoa, proposatutako jarduketa pasiboak eta aktiboak konbinatuta, aireztapen-instalazioa izan ezik.
 - Jarduketa aktiboen bidez EPNR kontsumoan lortutako %-aren murrizketa
- Aireztapen-instalazioaren bidez lortutako murrizketa

Aireztapen-instalazioei ekiten zaienean, taula bat sartuko da honako datu hauekin:

- Egoera eraberrituko berokuntza-eskaria, proposatutako jarduketa pasiboekin (aireztapen-instalazioek eragindako murrizketa kontuan hartu gabe).
 - Egoera eraberrituko berokuntza-eskaria, jarduketa pasiboak eta proposatutako aireztapen-instalazioa konbinatuz.
 - Aireztapen-instalazioaren bidez berokuntza-eskariaren gainean lortutako %-aren murrizketa
- Atari bakoitzerako monitorizazio-proposamenaren deskribapena, agindu honen III.B eranskinean adierazitakoaren arabera.

c. Irisgarritasuna hobetzeko jarduketak.

- Atari bakoitzerako dauden irisgarritasun-betekizunen deskribapena, berariaz adieraziz aplikatu beharreko araudia betetzen duten elementuak eta antzemandako akatsak.
 - Hiri-ingurunean (bide publikotik atariraino).
 - Eraikinaren barruan (ataria eta komunikazio bertikaleko nukleoa).

- Proposamenaren deskribapena eta atari bakoitzerako irisgarritasunaren arloan aplikatu beharreko araudiaren justifikazioa. Honako hauek bereizi behar dira:
 - Igogailu berriak instalatzea, eskailerak aldatuta edo aldatu gabe. Konponbideak lurzoru publikoa okupatzea edo espazio pribatiboen azalerak lagatzea/erostea eskatzen duenean, alderdi horiei buruzko proposamenaren bideragarritasuna dokumentatu beharko da.
 - Lehendik dauden igogailuak egokitzea.
 - Zero kotako irisgarritasuna konpontzeko jarduketak, aurrekoak ez bezalakoak
 - Atariaren ondoko hiri-ingurunean irisgarritasuna konpontzeko jarduketak, betiere urbanizazio pribatuetako jarduketak badira.

Justifikatu egin behar da irisgarritasun-araudia betetzen dela, proposamenak lortutako irisgarritasun-maila, eta beste alternatiba batzuen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa ezinezkoa dela araudiak baimendutako tolerantziak edo erabilgarritasun-irizpideak aplikatzen direnean.

Kasu guztietan, irisgarritasun-araudiak onartzen dituen erabilgarritasun-irizpideen eta tolerantzia-irizpideen aplikazioa teknikoki zein ekonomikoki justifikatu beharko da. Bideragarritasun teknikoan, nolana ere, irisgarritasuna hobetzeko eskatutako laguntzaren zenbatekoa hartuko da kontuan.

d. Suteetatik babesteko segurtasuna hobetzeko jarduketak.

- Atari bakoitzerako dauden suteetatik babesteko segurtasun-baldintzak deskribatzea.
- Atari bakoitzerako proposatutako irtenbidearen suteetatik babesteko segurtasunari buruzko oinarrizko dokumentua betetzearen justifikazioa.
- Babes-bitartekoen deskribapena, atari bakoitzerako bereiziz:
 - Larrialdiko argiztapen-instalazioa eta su-itxalgailuak.
 - Tutu lehorra instalatzea, hala badagokio.
 - Detekzio- eta alarma-instalazioa.

Suteetatik babesteko segurtasunari buruzko oinarrizko dokumentuko eskakizunak alde batera utzi gabe, detekzio- eta alarma-sistema bat txertatu behar da esku-hartzean.

e. Kanpoko bizigarritasuna hobetzeko jarduketak

- Etxebizitza bakoitzean dauden kanpo-espazioen deskribapena (balkoiak, terrazak, etab.), atari bakoitzerako.
- Etxebizitza bakoitzean proposatutako kanpo-espazioen

deskribapena, atari bakoitzerako bereiziz:

- Kanpoko espazio sortu berriak
- Handitu beharreko kanpoko espazioak

6.- JARDUKETA-PROGRAMA:

Proiektua idazteko eta obrak exekutatzeko aurreikusitako epeei buruzko kronograma.

Plana egiteko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Laguntzak emateko ebazpena, hala badagokio, eskaera aurkeztu eta 6 hilabetera emango da. Une horretatik aurrera, jarduketak egiteko denbora-eremua hiru urtekoa da.
- Hiru hilabeteko epea egongo da proiektua Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzari aurkezten zaionetik nahitaezko onespina eman arte. Onespen horren bidez, obrak lizitatu eta hasi ahal izango dira.
- Ez da kontuan hartuko agindu honen 29. artikuluan araututako epea luzatzeko aukera.

2. PROPOSAMENAREN AZTERKETA EKONOMIKOA.

Proposamenaren azterketa ekonomikoak eskema honi jarraituko dio: proposamenaren aurrekontuaren laburpena, kapitulu bakoitzaren zenbatespen orokorrarekin. Atari bakoitzerako aurrekontu bat egingo da.

Halaber, zerbitzu-sari tekniko profesionalak sartu beharko dira atari bakoitzerako.

1.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUKETEI BURUZKO KAPITULUAK.

EGEF edo Next Generation funtsen baterako finantzaketatik eratorritako betebeharrak betetzeko – Diruz lagun daitezkeen jarduketaren kontabilitate bereizia eskatzen dute –, kapitulu bereizi bat egon beharko da diruz lagun daitezkeen jarduketa bakoitzerako, honako azpikapitulu hauekin, hala badagokio:

1-* ENERGIA-EFIZIENTZIA/Jarduketa pasiboak (fatxada + estalkia).

2-* ENERGIA-EFIZIENTZIA/Jarduketa aktiboak:

2.1 Galdarak/energia-efizientzia handiko instalazio kolektiboak instalatzea/ordeztea.

2.2 Eguzki-instalazioak.

2.3. Geotermia-instalazioak/berriztagarrien beste instalazio batzuk

2.4 Aireztapen-instalazioak

3-* ENERGIA-EFIZIENTZIA/monitorizazioa.

4-* IRISGARRITASUNA (OBRA ZIBILA + IGOGAILUA):

4.1 igogailu berria instalatzea.

4.2 lehendik dagoen igogailuaren kabina egokitzea.

4.3 atariaren zero kotako obrak.

4.4 kanpoko urbanizaziorako irisgarritasun-obrak.

5-* SUTEETATIK BABESTEKO SEGURTASUNA.

5.1 su-itxalgailuak eta larrialdietako argiztapena.

5.2 tutu lehorra.

5.3 detekzio- eta alarma-sistema instalatzea.

6-* KANPOKO BIZIGARRITASUNA

6.1. Kanpoko espazio bizigarri berriak

6.2. Kanpoko espazioak handitzea

Kapitulu horiek, era berean, beste azpikapitulu batzuk ere izan ditzakete, obraren izaeraren arabera, baina diruz lagundu daitekeen jarduketa bakoitzari dagozkion kapituluak eta azpikapituluak, nolana ere, kapitulu gisa agertu behar dira aurrekontuan.

2- HONDAKINEN KUDEAKETARI, SEGURTASUN ETA OSASUNARI ETA KALITATE-KONTROLARI BURUZKO KAPITULUAK.

Gainera, hurrengo kapituluei dagozkien zenbatekoak koherentziaz jasanaraz daitezke diruz lagun daitezkeen jarduketei dagozkien kapituluei dagokienez:

1-* HONDAKINEN KUDEAKETA.

2-* OBRAREN SEGURTASUNA ETA OSASUNA.

3-* KALITATE-KONTROLA.

Horretarako, bi aukera daude:

- Aurrekontuan kapitulu independente gisa sartzea; kasu horretan, eragina diruz lagundu daitekeen jarduketa bakoitzaren ehunekoaren arabera egingo da, obraren guztizkoaren gainean (kapitulu horiek kanpo utzita).
- Diruz lagundu daitekeen jarduketa bakoitzaren barruan azpikapitulu gisa sartzea; adibidez:
 - Kapituluak: ENERGIA-EFIZIENTZIA/Jarduketa pasiboak (fatxada + estalkia).
 - Azpikapituluak: hondakinen kudeaketa, jarduketa pasiboak.
 - Kapituluak: irisgarritasuna (obra zibila + igogailua).
 - Azpikapituluak: irisgarritasuneko obraren hondakinen kudeaketa.

3- BALIABIDE LAGUNGARRIAK ETA DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUKETEI APLIKA DAKIZKIEKEEN BESTE KONTZEPTU BATZUK.

Azalpen hauek proposamenaren exekutitze-proiektuaren fasean islatu behar dira, baina memoria teknikoaren fasean kontuan hartu behar dira kalkulu ekonomiko zehatzagoa egiteko.

Ohikoa da birgaitzeko obretan diruz lagun daitezkeen jarduketei dagozkien obrei

zuzenean lotutako baliabide osagarriak egotea, horiek gabe ezinezkoa denean obrak egitea. Era berean, aurretiatzko jarduketak daude (eraispinak, desmuntaketa, etab.), jarduketak exekutatzeko ezinbestekoak direnak.

Horrelako kasuetan, eta betiere bitarteko lagungarriei eta diruz lagun daitezkeen jarduketei berez lotutako aurretiatzko jarduketei dagokienez, azpikapitulu gisa ere sar daitezke diruz lagun daitezkeen jarduketetan. Adibidez, aldarnio bat, fatxada baten birgaitze energetikoa egiteko, fatxadako elementu jakin batzuk eraisteko edo birgaitzeari ekiteko erorbide jakin batzuk desmuntatzeko jartzen dena.

Baliabide lagungarri horiek eta alde zurreko jarduketa horiek diruz laguntzeko modukoak izan daitezzen, berariaz agertu beharko dira diruz laguntzeko moduko jarduketaren kapitulu azpikapitulu gisa, aurrekontua exekutatzeko-proiektuaren fasean egiten denean. Fase honetan, diruz lagun daitezkeen jarduketan kapitulu edo azpikapitulu bakoitzari eragiten diotela ulertuko da.

4- BESTE KAPITULU BATZUK.

Obren xedea diruz lagundu daitezkeen jarduketez gain beste batzuk denean, jarduketa horiek kapitulu independenteen bidez justifikatuko dira aurrekontuan.

3. PLANOAK.

Planoen eskalak eta tamainak normalizatuak izan beharko dute. Horien definizio-maila aurreproiektu batena izango da, baina egungo egoeraren eta egoera eraberrituaren irisgarritasun-baldintzak justifikatzeko beharrezkoak diren ohar eta oharrak egin beharko dira.

1- Kokapenaren eta kokalekuaren planoak.

2.- Egungo egoeraren oinplanoak, sekzioak eta altxaera orokorrak. Honako hauek adierazi behar dira:

- Itxitura motak, deskribapen-memoriaren arabera
- Arotzeria motak, deskribapen-memoriaren arabera
- Kanpoko espazioak, deskribapen-memoriaren arabera

3- Eraberritutako egoeraren oinplanoak, sekzioak eta altxaera orokorrak (esku-hartzearen ondorioz aldaketa esanguratsuak gertatzen direnean bakarrik). Honako hauek adierazi behar dira:

- Energia-hobekuntzaren xede diren itxiturak, deskribapen-memoriaren arabera
- Hobetu edo ordeztu beharreko arotzeriak, deskribapen-memoriaren arabera
- Egoera eraberritan dauden espazioak, etxebizitza bakoitzean honako hauek bereiziz:
- Espazio sortu berriak: mugatuak eta ondoriozko azalera erabilgarria adieraziz
- Handitu beharreko espazioak: mugatuak eta zabalduko azalera erabilgarria eta guztizko azalera erabilgarria adierazita.

4- Bide publikotik egun dagoen egoeraren irisgarritasun-baldintzak, eta suteetatik

babesteko segurtasun-baldintzak:

- Hiri-ingurunearen oinplanoa eta atarirako sarbidea, kota orokorrekin eta zirkuluekin, irisgarritasun-araudia justifikatzeko, eta dauden maldak eta sestrak adieraziz.
- Ereduo-inplanoaren komunikazio-nukleoa, kota orokorrekin.

5.- Egoera eraberrituko irisgarritasun-baldintzak eta suteetatik babesteko segurtasun-baldintzak.

- Hiri-ingurunearen oinplanoa eta atarirako sarbidea, kota orokorrekin eta zirkuluekin, irisgarritasun-araudia justifikatzeko, eta proposatutako maldak eta sestrak adieraziz. Suteetatik babesteko sistemak antolatzea.
- Ereduo-inplanoaren komunikazio-nukleoa, kota orokorrekin. Suteetatik babesteko sistemak antolatzea.